



GOBERNU KONTSEILUAK
HARTUTAKO ERABAKIEN
ZERREDA (2023/11/21)

RELACIÓN DE ACUERDOS
ADOPTADOS POR EL CONSEJO DE
GOBIERNO (21/11/2023)

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.

1 Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

Onartua

Aprobado

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Erabaki-proposamena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendioa izenpetzeko baimena ematekoa, Ertzaintzaren lehen eta bigarren hizkuntza-eskakizunetan hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiteko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko ikastaroko ikasleei euskara irakasteko.

2 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la encomienda de gestión entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y el Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE), para la celebración de cursos de capacitación lingüística en el primer y en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza, y de impartición de euskera al alumnado del curso de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía del País Vasco.

Onartua

Aprobado

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Dekretu-proiektua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.

3 Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento de la Renta de Garantía de Ingresos.

Onartua

Aprobado

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko dirulaguntzak finantzatzeko. Lehen Aukera programa.

4 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar las subvenciones destinadas a la contratación de personas jóvenes desempleadas en empresas vascas. Programa Lehen Aukera.

Onartua

Aprobado



Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 EGF Plus programa eragilearen esparruan (2024ko ekitaldia) toki erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzak finantzatzeko.

Onartua

- 5 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar las ayudas para la contratación de personas jóvenes por entidades locales en el marco del programa operativo FSE Plus del País Vasco 2021-2027 (Ejercicio 2024).

Aprobado

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak finantzatzeko, 2023. urterako.

Onartua

- 6 Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar las ayudas destinadas a la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción, para el año 2023.

Aprobado

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Erabaki-proposamena, hiri-lurzoruko espedienteetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaietako kide titularra kargutik kendu eta izendatzekoa.

Onartua

- 7 Propuesta de Acuerdo de cese y nombramiento de vocal titular en los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, en expedientes de suelo en situación de urbano.

Aprobado

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

Jakinarazia

- 8 Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

Se informa

LEHENDAKARITZA

LEHENDAKARITZA

Ebazpena, Gazteriako zuzendariarena, 2024. urterako "Euskadiko Gazteak Lankidetzan" programaren deialdia egitekoa.

Resolución de la Directora de Juventud, por la que se convoca el programa "Juventud Vasca Cooperante", para el año 2024.

Ebazpena, Gazteriako
zuzendariarena, 2024rako
garapenerako lankidetzako
erakundeei dei egiten diena
"Euskadiko Gazteak Lankidetzan"
programarako proiektuak aurkez
ditzaten.

Resolución de la Directora de
Juventud, por la que se convoca, para
el año 2024, a entidades de
cooperación al desarrollo para la
presentación de proyectos para el
programa "Juventud Vasca
Cooperante".

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Erabakia, Lanbideko Administrazio
Kontseiluarena, 2024. urterako
dirulaguntzen deialdia onartzekoa,
sektoreko prestakuntza-beharrak
aztertu eta hautemateko azterlanak
egiteko.

Acuerdo del Consejo de
Administración de Lanbide, por el que
se aprueba la convocatoria de
subvenciones, para el año 2024, para
la elaboración de estudios de análisis
y detección de necesidades de
formación sectoriales.

Erabaki-proposamena, Lanbideko
Administrazio Kontseiluarena, 2024ko
ekitaldirako txanda-kontraturako
laguntzen deialdia onartzekoa.

Acuerdo del Consejo de
Administración de Lanbide, por el que
se aprueba la convocatoria de ayudas
al contrato de relevo para el ejercicio
2024.

Erabakia, Lanbideko Administrazio
Kontseiluarena, gazte langabeak
euskal enpresetan kontratatzeko
2024rako laguntzen deialdia
onartzekoa. Lehen Aukera Programa.

Acuerdo del Consejo de
Administración de Lanbide, por el que
se aprueba, para el año 2024, la
convocatoria de ayudas destinadas a
la contratación de personas jóvenes
desempleadas en empresas vascas.
Programa Lehen Aukera.

Erabakia, Lanbideko Administrazio
Kontseiluarena, 2024ko laguntzen
deialdia onartzen duena, 2021-2027ko
Euskal Autonomia Erekidegoko EGF
plus programaren esparruan toki

Acuerdo del Consejo de
Administración de Lanbide, por el que
se aprueba la convocatoria de
ayudas, para el 2024, para la
contratación de personas jóvenes por
entidades locales en el marco del

entitateek gazteak kontratatzeko.

programa FSE Plus del País Vasco 2021-2027.

Erabakia, Lanbideko Administrazio Kontseiluarena, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzekoa. Agindu horretan laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dira.

Acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide, por el que se incrementan los recursos económicos destinados a la financiación de la convocatoria, para el año 2023, de las ayudas previstas en la Orden de 4 de mayo de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako laguntzen oinarri arautzaileak, 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) Plan Estrategiko Nazionalaren esparruan mahastizaintza eta ardogintzako sektoreko esku-hartzearen barruan.

Orden por la que se aprueban las bases reguladoras de la convocatoria, para el ejercicio 2024, de las ayudas a las operaciones de reestructuración y reconversión del viñedo, incluidas en la Intervención Sectorial vitivinícola (ISV), en el marco del Plan Estratégico Nacional de la Política Agrícola Común (PAC) 2023-2027.

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Agindua, jarduera zientifikoa sustatzeko, Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2023ko ediziorako deialdia egiten duena.

Orden por la que se convoca el Premio Euskadi de Investigación 2023, con el fin de fomentar la actividad científica.



Agindua, zeinaren bidez laguntzak iragartzen baitira Hezkuntza-Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko (Udalaguntza-2023).

Orden por la que se convocan ayudas a la financiación de los gastos destinados a la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan Centros docentes dependientes de la Administración educativa (Udalaguntza-2023).

**BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

**DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES**

Agindua, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretuaren III. Eranskinean jasotako ordainsarien oinarriak eta moduluak eguneratzekoa.

Orden por la que se actualizan los módulos y bases de compensación económica contenidos en el Anexo III del Decreto 153/2018, de 30 de octubre, de Asistencia Jurídica Gratuita.

**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN
SAILA**

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE**

Dekretu-proiektua, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide bat berritzeko dena.

9 Proyecto de Decreto de renovación de un vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Onartua

Aprobado



Erabaki-proposamena, Rio Grande do Sul-eko (Brasil) Estatuko Gobernuarekin sinatu beharreko Elkar Ulertzerako Memoranduma aintzat hartzekoa.

Jakinarazia

- 10** Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Memorandum de Entendimiento a suscribir con el Gobierno del Estado de Rio Grande Do Sul, Brasil.

Se informa

Erabaki-proposamena, abeltzaintza-ustategietako hainbat titularri zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Euskal Haragitarako Behien Azpisektorean nekazaritza-jarduerari eusteko, Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondoren ekonomia babesteko Estatuko laguntza-neurriei buruzko Aldi Baterako Esparru Nazionalaren barruan.

Onartua

- 11** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a diversos titulares de explotaciones ganaderas para el mantenimiento de la actividad agraria en el Subsector de Vacuno de Carne Vasco, dentro del Marco Temporal Nacional relativo a las medidas de Ayuda Estatal destinadas a respaldar la economía tras la agresión contra Ucrania por parte de Rusia.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Fundación Azti-Azti Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Offshore ikerketa-poligonoa irtenbide zirkularretarako, Europako Ekonomia Urdinaren Estrategiari erantzuteko (2030)" proiektua garatzeko.

Onartua

- 12** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Fundación Azti-Azti Fundazioa, para el desarrollo del Proyecto "Poligono de Investigación Offshore para Soluciones Circulares en respuesta a la Estrategia de la Economía Azul Europea (2030)"

Aprobado

Erabaki-proposamena, Fundación Azti-Azti Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2023an Azpiegitura Zientifiko-Teknologikoetako Inbertsio-Plana garatzeko.

Onartua

- 13** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Fundación Azti-Azti Fundazioa, para el desarrollo del Plan de Inversiones en Infraestructuras Científico-Tecnológicas, durante 2023.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Fundación Azti-Azti Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, ICES-CIEM 2023ren urteko konferentzia zientifikoa finantzatzeko.

Onartua

- 14** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Azti-Azti Fundazioa, para financiar la celebración de la conferencia científica anual del ICES-CIEM 2023.

Aprobado



Erabaki-proposamena, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. (Iberdrola Taldea), erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Urdaibaiko Biosfera Erreserban dauden linea elektrikoak egokitzeko, hegazti-fauna babesteko, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan-, eta dirulaguntza hori bideratzeko hitzarmena aintzat hartzekoa.

Onartua

15 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.(Grupo Iberdrola), para la adaptación de líneas eléctricas ubicadas en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai con el fin de proteger la avifauna, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia-Financiado por la Unión Europea-Next Generation EU, y de toma en conocimiento del convenio a través del cual se instrumentaliza la subvención.

Aprobado

Erabaki-Proposamena, Elecnor Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, itsas ingurune eta ibaietako hondakinen pilaketa-eta sakabanatze-fenomenoei buruzko ezagutza sortzeko.

Hurrengo bilera baterako

16 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Elecnor, con la finalidad de generar conocimiento sobre los fenómenos de acumulación y dispersión de los residuos en el medio marino y en los ríos.

Pendiente: una próxima Sesión

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Erabaki-proposamena, Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko ente publikora bideratutako funtsetan 4.200.000 euroko soberakinak daudela deklaratzeari buruzkoa.

Onartua

17 Propuesta de Acuerdo sobre declaración de excedentes de fondos destinados al ente público de derecho privado Euskal Trenbide Sarea, por importe de 4.200.000 euros.

Aprobado

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura 7.000.000,00 eurotan zabaltzekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak 2023ko ekitaldian 1212 Programan (Zerbitzu Orokorrak) dituen kreditu-beharrizanei aurre egiteko, Arka eraikina erosteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren lurralde-zerbitzuak erabili ahal izateko.

Onartua

18 Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, por importe de 7.000.000,00 euros, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno en el ejercicio 2023, en el Programa 1212 - Servicios Generales, para la adquisición del edificio Arca, al objeto de posibilitar el uso de servicios territoriales de la Administración General del País Vasco.

Aprobado



Erabaki-proposamena, Elkargi EBB sozietateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Hornidura Teknikoen Funtsa indartzeko eta dirulaguntza hori gauzatzeko hitzarmena aintzat hartzekoa.

Onartua

- 19** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Elkargi S.G.R., para el reforzamiento de su Fondo de Provisiones Técnicas y de toma en conocimiento del convenio a través del cual se instrumentaliza la subvención.

Aprobado

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Hezkuntza Administrazioaren menpeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko laguntzetarako (Udalaguntza-2023).

Onartua

- 20** Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, en concepto de ayudas a la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la Administración Educativa (Udalaguntza-2023).

Aprobado

Erabaki-proposamena, CPES Otxarkoaga BHIPri zuzeneko dirulaguntza ematekoa, inoren kargura ez dauden ikasle adingabe etorkinei 2022-2023 ikasturtean Lehen Harrera Emateko Programaren 6. eta 7. taldeak finantzatzeko.

Onartua

- 21** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al CPES Otxarkoaga BHIP, para la financiación de los grupos 6 y 7 del Programa de Primera Acogida Educativa al alumnado inmigrante menor no acompañado, durante el curso 2022-2023.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Bizkaian sortzen ari diren gizarte- eta hezkuntza-premiak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko programak finantzatzeko.

Onartua

- 22** Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Consorcio para la Educación Compensatoria del Territorio Histórico de Bizkaia, para financiar programas dirigidos a prevenir e intervenir ante necesidades emergentes de carácter socioeducativo en Bizkaia.

Aprobado



Erabaki-proposamena, irabazi asmorik gabeko Lanbide Heziketako Itunpeko Ikastetxe Pribatu Integratuei zuzeneko dirulaguntza ematekoa. Ikastetxe hauek dira: CPIFP Maristak Durango LHIPI, CPIFP Lea-Artibai LHIPI, CPIFP Nazaret Lanbide Heziketa LHIPI, CPIFP Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola LHIPI, CPIFP Salesianos Urnieta LHIPI, CPIFP Irungo La Salle LHIPI, CPIFP Innovación Social Diego Berguices-Otxarkoaga LHIPI, CPIFP Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia LHIPI, CPIFP San Viator LHIPI eta CPIFP Peñascal LHIPI, 2023an, "Zentro adimendunak 5.0" proiektuan parte hartu zutenak, espazio, ekipo eta azpiegituren eraldaketa digitala eta jasangarria finantzatzeko.

Onartua

23 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a los Centros Privados Concertados Integrados de Formación Profesional sin ánimo de lucro, CPIFP Maristak Durango LHIPI, CPIFP Lea-Artibai LHIPI, CPIFP Nazaret Lanbide Heziketa LHIPI, CPIFP Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola LHIPI, CPIFP Salesianos Urnieta LHIPI, CPIFP Irungo La Salle LHIPI, CPIFP Innovación Social Diego Berguices-Otxarkoaga LHIPI, CPIFP Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia LHIPI, CPIFP San Viator LHIPI, y CPIFP Peñascal LHIPI, participantes en el Proyecto "Centros Inteligentes 5.0", para la financiación de la Transformación Digital y Sostenible de sus Espacios, Equipos e Infraestructuras en el año 2023.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Güeñes, Astigarraga eta Oñatiko udalei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Haur Hezkuntzako lehen zikloan titulartasun publikoko 55 plaza sortzeko, "Hezkuntza Sistemaren Modernizazioa eta Digitalizazioa, 0 eta 3 urte bitarteko Hezkuntza Goiztiarra barne" 21. osagaiaren esparruan, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatzeko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Onartua

24 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a los Ayuntamientos de Güeñes, Astigarraga y Oñati, para la creación de 55 plazas de titularidad pública en el primer ciclo de Educación Infantil, dentro del Marco del Componente 21 "Modernización y Digitalización del Sistema Educativo, incluida la Educación Temprana de 0 a 3 Años". en el Marco del Plan de Recuperación, Transformación Y Resiliencia-financiado por la Unión Europea-Next Generation EU.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Euskampus Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Zientziaren Gizarte-Komunikazioa Ardatz" sozializazio-proiektuaren bidez zientziaren ezagutza soziala bultzatzeko.

Onartua

25 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Euskampus, para impulsar el conocimiento social de la ciencia mediante el proyecto de socialización "Comunicación Social de la Ciencia como Eje".

Aprobado

Erabaki-proposamena, Donostia International Physics Center Fundazioari (FDIPC) zuzeneko dirulaguntza ematekoa, eraikin berri bat eraikitzeko obrak egiteko proiekturako.

Onartua

26 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Donostia International Physics Center (FDIPC), para el proyecto constructivo de las obras de construcción de un nuevo edificio.

Aprobado



Erabaki-proposamena, San Viator Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatu Integratuari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Enkarterri eskualdea biziberritu eta berreskuratzeko, Lanbide Heziketatik sektore aurreratuak bultzatuz, hezkuntza eta lan mundua integratuz, 2023. urtean.

Onartua

27 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Centro Privado Integrado de Formación Profesional San Viator, para la regeneración y recuperación la comarca de Enkarterri, a través del impulso desde la Formación Profesional a sectores avanzados, integrando el mundo educativo y el laboral, en el año 2023.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Materials Physics Center (MPC) zentroari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Teknologia Kuantikoen Laborategia indartzeko.

Onartua

28 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Materials Physics Center (MPC) para el fortalecimiento del Laboratorio de Tecnologías Cuánticas.

Aprobado

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa, irakaskuntza pribatu arautuaren sektoreko eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikasletoleko liberatu sindikalen kostua finantzatzeko, 2023/2024 ikasturterako.

Onartua

29 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa para la financiación del coste de las y los liberados sindicales del sector de la enseñanza privada reglada e ikastolas de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, para el curso 2023/2024.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Ikerbasque Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, BASQ Unitatea abiarazteko.

Hurrengo bilera baterako

30 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Ikerbasque, para el lanzamiento de la Unidad BASQ.

Pendiente: una próxima Sesión

OSASUN SAILA

Erabaki-proposamena, Osasun Sektoreko Mahaiaren Akordioa onartzekoa, Osakidetza langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 103. artikuluan aurreikusitako berariazko osagarria aplikatzeko.

Onartua

31 Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el Acuerdo de la Mesa Sectorial de Sanidad, para la aplicación del complemento específico previsto en el artículo 103 del Acuerdo regulador de condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Aprobado

DEPARTAMENTO DE SALUD

**BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA****DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y
POLÍTICAS SOCIALES**

Erabaki-proposamena, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzat hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematekoa, espetxeetan unibertsitate-irakaskuntzen programa garatzeko.

Onartua

32 Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para el desarrollo del programa de enseñanzas universitarias en los centros penitenciarios.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Medicus Mundi Bizkaia entitateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Hondurasen emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen osasun mentala modu integralean lantzeko laguntza teknikoa eta antolamendukoa emateko.

Onartua

33 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Medicus Mundi Bizkaia, para la asistencia técnica y organizativa en el abordaje integral de la salud mental en mujeres y personas LGTBIQ+ en Honduras.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Anesvad Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Ghanako gizarte-ekintzailetzaren sektorea sustatzea, arretarik gabeko gaixotasun tropikalen aurkako borrokan lagun dezan" proiektuaren garapena finantzatzeko.

Onartua

34 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Anesvad, para financiar el desarrollo del proyecto "Promoción del sector del emprendimiento social en Ghana, para que contribuya a la lucha contra las enfermedades tropicales desatendidas".

Aprobado

Erabaki-proposamena, Elkarrekin Kooperatiba Txikia, Aldaika Hezkuntza Elkartea eta Adsis Fundazioari zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, "Familia Laguna" programa Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetara zabaltzeko.

Onartua

35 Propuesta de Acuerdo de concesión de subvenciones directas a las entidades Elkarrekin Kooperatiba Txikia, Asociación Educativa Aldaika y Fundación Adsis, para extender el programa "Familia Laguna" a los tres territorios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Aprobado

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA****DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari "Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna SL" erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematekoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren titulartasunpeko akzioen ordezkari baimena ematekoa sozietatearen estatutuetako 6. artikulua aldaketarekin bat etortzeko.

Onartua

36 Proyecto de Decreto por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital en la sociedad de responsabilidad limitada "Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L." y se autoriza a los representantes de las acciones titularidad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi a prestar su conformidad a la modificación del artículo 6 de los estatutos sociales de dicha Sociedad.

Aprobado

Dekretu-proiektua, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendaritza Kontseiluko kide batzuk kargutik kendu eta beste batzuk izendatzeko.

Onartua

37 Proyecto de Decreto por el que se cesan y nombran miembros del Consejo de Dirección del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute.

Aprobado

Erabaki-proposamena, Eibarko Udalari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, STAR 3 zenbakidun eskopeta damaskinatua erosteko, 2023an Eibarko Armagintza Museoaren bilduma osatzeko.

Onartua

38 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Eibar, para la compra de la escopeta damasquinada STAR nº3, para completar la colección del Museo de la Industria Armera de Eibar, en el año 2023.

Aprobado

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONSUMO SAILA**DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO**

Erabaki-proposamena, Araba, Gipuzkoa eta Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbarekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena aintzat hartzeko, 2023ko ekitaldirako "Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteen Errolda" programa garatzeko.

Jakinarazia

39 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con las Cámaras de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de Álava, Gipuzkoa y Bilbao, para el desarrollo del programa "Censo de asociaciones de comerciantes del País Vasco", correspondiente al ejercicio 2023.

Se informa



Erabaki-proposamena, Enkarterrietako Enkartur Turismo Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa-gehigarria aintzat hartzekoa, Enkarterrietako Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana (HJTP) gauzatzeko. Plan hori Euskadi 2021erako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planari dagokio, Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Jakinarazia

- 40** Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la Adenda de modificación al convenio suscrito con la Asociación de Turismo Encartaciones Enkartur, para la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino (PSTD) de Encartaciones, correspondiente al Plan Territorial de Sostenibilidad Turística en Destino de Euskadi 2021, enmarcado en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por fondos de la Unión Europea-Next Generation EU.

Se informa

GAI-ZERRENDAZ KANPO

FUERA DEL ORDEN DEL DIA

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa ADIF-Alta Velocidad enpresa-erakunde publikoarekin hitzarmen bat izenpetzeko. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku uzten da Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriko Bilbao-Abandoko geltokira sartzeko korridorearen plataforma-proiektuak idaztea eta obrak eraikitzea.

Onartua

- 41** Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con la Entidad Pública Empresarial ADIF-Alta Velocidad, por el que se encomienda a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco la redacción de proyectos de plataforma y construcción de obras de plataforma del corredor de acceso a la estación de Bilbao-Abando, de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco.

Aprobado